

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 1921/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, estatu kideetan lehorreratzten diren arrantzako produktuen gaineko datu estatistikoak transmititzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 1382/91 EE Erregelamendua indargabetzen duena (Testu egokia EEeri dagokionez).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : « *Reglamento (CE) n° 1921/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, relativo a la transmisión de datos estadísticos sobre los desembarques de productos de la pesca en los Estados miembros y por el que se deroga el Reglamento (CEE) n° 1382/91 del Consejo* » (DO UE-L 403 de 30/12/2006, pg. 1)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Egintza hauek argitaratu egin behar dira, aplikagarriak izan daitezzen)

1921/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 18koa, estatu kideetan lehorreratzen diren arrantzako produktuen gaineko datu estatistikoak transmititzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren 1382/91 (EEE) Erregelamendua indargabetzen duena.

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen Tratataua, eta, bereziki, haren 285. artikulua 1. paragrafoa aztertu dute,

Kontseiluaren proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikulua araututako prozedura bete dute,

(1) Kontseiluaren 1382/91 (EEE) Erregelamendua, 1991ko maiatzaren 21ekoak, estatu kideetan lehorreratzen diren arrantza-produktuen gaineko datu estatistikoak transmititzeari buruzkoak, xedatzen du estatu kideek jakinarazi egin behar dutela, batetik, zenbat arrantzako produktu lehorreratzen den beraien lurraldeetan, eta, bestetik, zer salneurri duten produktu horiek, batez beste.

(2) Esperientziak erakusten du posible dela, erkidegoko legediari jarraituta, datuak urtean behin transmititzea, haiek hilerio jakinarazi beharrean, horrek ez bailieke kalterik eragingo arrantzako produktuen merkatuaren azterketei eta beste azterketa ekonomiko batzuei.

(3) Analiak hobeak izango liriteke, baldin eta lehorreratzen diren arrantzontzien pabiloiaren arabera banakatuko balira datuak.

(4) 1382/91 (EEE) Erregelamendua muga bat ezartzen dio baimendutako laginketa-tekniken norainokoari, baldin eta datuak biltzea eta bildumatea gehiegizko zama bada zenbait agente nazionalentzat. Datuen transmisioa hobetu eta sinplifikatu ahal izateko, komeni da tresna berri batek ordezkatzeko Erregelamendu hori. Horregatik, 1382/91 (EEE) Erregelamendua indargabetu egin behar da.

(5) Estatu kideak ez dira gai behar bezala betetzeko Erregelamendu honen helburua, hau da, ezin dute esparru juridiko komun bat eratu, estatu kideetan lehorreratzen diren arrantzako produktuen gaineko Erkidegoko datu estatistikoak sistematikoki jasotzeko. Ikusita helburu hori hobeto lor daitekeela erkidego-mailan, Erkidegoak, Tratatu 5. artikulua zehaztutako subsidiarotasun-printzipioa baliatuz, neurriak har ditzake horren inguruan. Erregelamendu hau ez da xede hori betetzeko beharrezkoa dena baino areago joango.

(6) Kontseiluaren 322/97 (EE) Erregelamendua, 1997ko otsailaren 17koa, Erkidegoko estatistikari buruzkoa⁽¹⁾, da arrantza-alorreko estatistiken erreferentzia-markoa. Zehazki, hainbat printzipio betetzea eskatzen du: inpartzialtasuna, fidagarritasuna, bidezotasuna, kostu-eraginkortasun erlazioa, sekretu estatistikoa eta gardentasuna.

(7) Garrantzitsua da Erregelamendu hau uniformeki aplikatuko dela bermatzea eta erkidego-prozedura batek aplikazio-arauak zehaztea. Prozedura horren laguntzarekin, epe egokietan ezarriko dira aplikazio-arauak, eta beharrezko egokitzapen teknikoak egingo dira.

(8) Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koa, araututakoari erreparatuko zaio Erregelamendu hau betetzeko neurriak onartzeko. Erabaki horrek arautzen du zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak erabiltzeko⁽²⁾.

¹ EO L 52, 1997.2.22koa, 1. or. 1882/2003 (EE) Erregelamendua aldatu zuen Erregelamendua

² EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen Erabakia (EO L 200, 2006.7.22koa, 11. or.)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(9) Kontuan izan behar da arrantzako produktuen lehorreratzeari buruzko datu estatistikoak oinarritzko tresna direla arrantza-politika komuna kudeatu ahal izateko. Horrenbestez, egokia da 1999/ 468/EE Erabakian ezarritako kudeaketa-prozedurara jotzeko aukera ematea, estatu kideek aukera izan dezaten, batetik, Erregelamendua aplikatzeko epe iragankorrek erabakitzeko, eta, bestetik, salbuespenak ezartzeko, transmititutako nazio-mailako datu estatistikoetatik kanpo uzteko arrantzako sektore zehatz bati buruzko datuak.

(10) Bestalde, Batzordeari ahalmena eman behar zaio eranskinak teknikoki moldatzeko zer baldintza bete behar diren ezar dezan. Neurri horiek ez direnez orokorrak, eta Erregelamenduan oinarritzkoak ez diren elementuak aldatzeko helburua dutenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan ezarritako araugintza-prozedura kontrol-dunaren arabera onartu behar dira.

ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

1. Artikulua

Definizioak

Erregelamendu honi dagokionez, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- 1) "erkidegoko arrantzontziak": Estatu kide bateko pabiloia izan eta Erkidegoan erregistratuta dauden arrantzontziak dira;
- 2) "EFTAko arrantzontziak": EFTAko herrialde bateko pabiloia duten arrantzontziak edota EFTAko herrialderen batean erregistratuta daudenak dira;
- 3) "aleko balioa":
 - a) lehorreratutako arrantzako produktuen lehenengo salmenta-prezioa (moneta nazionalean) zati lehorreratutako kantitatea (tonatan), edo
 - b) arrantzako produktuak berehala saltzen ez direnean, metodo egokia erabilita kalkulatzeko batez besteko tonako prezioa (moneta nazionalean).

2. Artikulua

Estatu kideen betebeharrak

1. Urtero, estatu kideek Batzordeari datu estatistikoak igorriko dizkiote, erkidegoko arrantzontziek eta EFTAko arrantzontziek haien lurraldeetan lehorreratutako arrantzako produktuei buruzkoak (hemendik aurrera, "datu estatistiko").
2. Erregelamendu honen baitan, Estatu kideko lurraldean lehorreratutakotzat hartuko dira honako arrantzako produktu hauek:
 - a) Erkidegoko portu nazionaletan arrantzontziek edota arrantza-ontzidiko beste zenbait ontzik lehorreratutako produktuak;
 - b) Erkidegotik kanpoko portuetan lehorreratzen diren estatu kide aitortzailearen arrantzontzietako produktuak, T2M inprimakiak babestuak. Batzordearen 2454/93 (EEE) Erregelamenduak, 1993ko azaroaren 2koak, 43. eranskinean arautzen du inprimaki hori (2454/93 EE Erregelamenduak finkatu egiten ditu Kontseiluaren 2913/92 (EEE) erregelamenduari, Erkidegoko Aduana Kodea ezartzekoari, dagozkion zenbait aplikazio-xedapen ⁽¹⁾).

3. Artikulua

Datu estatistikoak bildumatzea

1. Erkidego barruko lurzoru nazionaletan egiten diren lehorreratze guztiak adieraziko dituzte datu estatistikoek.

¹ EO L 253, 1993.10.11koa, 1. or. 402/2006 (EE) Erregelamenduak aldatu zuen azken aldiz Erregelamendua (EO L 70, 2006.2.9koa, or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Laginketa-teknikak erabili ahal izango dira, baldin eta, estatu kide bateko arrantza-sektorearen egiturazko ezaugarriak direla eta, datu zehatzak biltzeko gehiegizko zailtasunak ekartzen badizkio agintaritza nazionalari, sektore horrek duen garrantziaren aldean.

4. Artikulua

Datu estatistikoak

Erreferentziako urte naturalaren barruan lehorreratutako arrantzako produktuen kopuru osoa eta haien aleko balioa adierazi behar dute datu estatistikoek. I., II. eta III. eranskinetan datozen aldagaien arabera transmititu behar dira datu estatistikoak, haien definizioak eta dagokien nomenklatura.

5. Artikulua

Datu estatistikoak transmititzea

Estatu kideek urtean behin transmititu beharko dizkiote datuak Batzordeari, I. eranskinen zehaztutako formatuaren arabera, eta II., III. eta IV. eranskinetan ezarritako kodeak erabiliz. Datu estatistikoak transmititzeko sei hileko epea egongo da, erreferentziako urte naturala bukatzen denetik aurrera.

6. Artikulua

Metodologia

1. 2008ko urtarrilaren 19an beranduenez, estatu kideek txosten metodologiko zehatzak bidaliko dizkiote Batzordeari, datuak eta estatistikak nola bildu diren azalduz. Txostenak laginketa-teknikari buruzko informazioa emango du, eta baita estimazioen kalitateari buruzko ebaluazioa ere.

2. Batzordeak txostenak aztertuko ditu eta konklusioak nekazaritza-estatistikaren Komite Iraunkorreko (aurrerantzean "Komitea" deituko diogu) dagokion lantaldeari agertuko dizkio, Kontseiluaren 72/279/EEE Erabakiko 1. artikuluko araututakoari jarraiki (¹).

3. 1. paragrafoan zehaztutakoari jarraituz emandako informazioan aldaketaren bat egonez gero, hiru hilabeteko epea edukiko dute estatu kideek, aldaketa egiten denetik hasita, Batzordeari haren berri emateko. Halaber, datuak biltzeko metodoetan funtsezko aldaketarik izanez gero, Batzordeari emango diote aldaketaren berri. 167/10 L EU Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala 2006.6.20

7. Artikulua

Trantsizio-epeak

Erregelamendu hau indarrean sartzen den datatik hasita, estatu kideek hiru urteko trantsizio-epea izango dute gehienez, hura aplikatzeko, 11. artikuluko 2. paragrafoan azaltzen den prozedurari jarraituz.

8. Artikulua

Salbuespenak

1. Baldin eta arrantza-sektore jakin bati buruzko datuak biltzea, duen garrantziagatik, gehiegizko zama bada estatu kide bateko agintari nazionalarentzat, salbuespena eman ahal izango zaio 11. artikuluko 2. paragrafoak araututakoari jarraituz. Hala, estatu horrek ez du sartu beharko sektore horren gaineko daturik transmititutako gainerako datu estatistiko nazionalen artean.

2. Estatu kide batek, 1. paragrafoari jarraituz, salbuespena eskatzen badu, txosten bat emango dio Batzordeari. Txosten horretan azaldu behar du zer arazo izan dituen bere lurraldean izandako lehorreratze guztien gainean Erregelamendu hau aplikatzeko garaian.

¹ EO L 179, 1972.8.7koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

9. Artikulua

Eranskinak eguneratzea

Eranskinetan moldaketa teknikoak egiteko neurriak 11. artikuluko 3. paragrafoan azaldutako araugintza-prozedura kontrolatuaren arabera onartuko dira.

10. Artikulua

Ebaluazioa

2010eko urtarrilaren 19a baino lehen, eta, gerora, hiru urtero, Batzordeak ebaluazio-txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, Erregelamendu hau aplikatzean bildutako datu estatistikoak ebaluatuz, zenbateraino diren egokiak eta kalitate onekoak zehaztuz. Txosten horretan, gainera, datu estatistikoak biltzeko eta lantzeko ezarritako sistemak dakartzan kostuak eta mozkinak aztertuko dira; eta, era berean, jardunbide onenak zein izan diren deskribatuko da, batetik, estatu kideei lan-zama gutxitzeko, eta bestetik, datu estatistikoak erabilgarriagoak eta kalitate hobekoak izateko.

11. Artikulua

Komitea

1. Komiteak Batzordeari lagunduko dio.
2. Paragrafo honi erreferentzia egiten bazaio, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz. 1999/468/EE Erabakiko 4. artikuluko 3. paragrafoak adierazitako epea hiru hilekoa izango da, .
3. Paragrafo honi erreferentzia egiten bazaio, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1-4 paragrafoak eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan agindutakoa kontuan hartuz.

12. Artikulua

Indargabetzea

1382/91 (EEE) Erregelamendua indargabetzen da.

13. Artikulua

Indarrean sartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratu eta hogeit hamar egunetara sartuko da indarrean zuzentarau hau. Erregelamendu honen elementu guztiak derrigorrean betetzekoak eta estatu kide guztietan zuzenean aplikatzekoak izango dira. Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

Europako Parlamentuaren izenean Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Europako Kontseiluaren izenean Presidentea

J.-E. ENESTAM